



Arartekoaren 2015R-691-15 Ebazpena, 2015eko ekainaren 25ekoa. Horren bidez, Abanto-Zierbenako Udalari gomendatzen zaio herritar bati emandako euskara ikasteko diru-laguntzaren zenbatekoa berrikus dezan

Aurrekariak

1. Abanto-Zierbenako auzotar batek diru-laguntza eskatu zuen 2013-2014 ikasturtean euskara ikasteko. Udalak ez zion esan eskarian zegoen akatsa zuzendu behar zuela, eta bere ustez, egin behar izan zuen. Hori dela eta, auzotarrak jo du erakunde honetara eta kexa aurkeztu du, Udalaren jardueraren ondorioz, bere eskubideak eta legezko interesak kaltetu direla uste duelako.

Kexagilearen arabera, Udaleko Gobernu Batzordeak 2014ko abenduaren 15ean bidalitako idazkiaren bidez jakinarazi zion eskatutako diru-laguntza eman ziotela eta beka gisa 9,04 € bakarrik zegokiola. Interesdunak pentsatu zuen zenbateko horrek akats bat izan behar zuela, euskara ikasten duten pertsonen matrikula-kostuaren % 40 inguru itzuli ohi zaielako, eta kexagileak 445 € ordaindu zuen matrikulagatik.

Hori dela eta, berehala saiatu zen Udalarekin harremanetan jartzen, baina 2015eko urtarrilaren 8ra arte ez zuen lortu euskara-teknikariarekin hitz egiterik, egiaztatu denez, hura lehenengoz oporretan, eta gero bajan egon zelako. Teknikariak azaldu zion kexagileari zenbateko hura eman zitzaiola, ordainketa egin zuela justifikatzeko ziurtagiriak aurkeztu ez zituelako. Esan zion, gainera, eskarian ikusitako akatsak zuzentzeko beharra bere garaian jakinarazi ez ziola, lan-karga handia zela-eta, astirik izan ez zuelako.

2. Erantzun hori jasota, kexa jarri zuen horretaz arduratzen den Sailean eta Udal Erregistroan aurkeztu zituen ordaindutako zenbateko osoari dagozkion banku-ziurtagiriak. Otsailean, euskara, ekitaldi eta jaietako zinegotziak deitu eta bere kasua aztertuko zela esan zion. Halaber, kexagileak azaldu digu apirilaren 14an Udaletik deitu ziotela; onartu zuten akatsak egon zirela, bai kexagilearen aldetik (ordaindutako gastua ziurtatzeko agiri guztiak aurkeztu ez zituelako), bai Udalaren aldetik (kexagileak ezin zituen falta ziren dokumentuak aurkeztu, Udalak inguruabar hori jakinarazi ez ziolako); hala ere, une horretan dagoeneko ez zen posible diru-laguntza ordaintzea, 2015eko aurrekontua kudeatzen ari zirelako.



Interesdunak bere ezinegona erakutsi du egoera horren aurrean, bere ustez, prest agertu zen eskarian zegoen akatsa zuzentzeko eta lehenago ez bazuen egin, Udalak dokumentuak eskatzeko bere betebeharra bete ez zuelako izan da. Bere garaian Udalean aurkeztutako banku-ziurtagirien kopia erantsi dio kexari.

3. Udalari informazioa eskatu diogu eta epe barruan eta dagokion eran jaso dugu alkate andrearen idatzi bat. Horren bidez, lehenengo eta behin, zehaztu ditu kexan aipatutako diru-laguntzen deialdian aurkeztu beharreko dokumentuak: eskari normalizatua; NANaren fotokopia; euskaltegiak emandako ziurtagiria eta txostena – asistentziarena eta gainditu izanarena; Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak, eta hala badagokio, langabezian egotearen egiaztagiria.

Lehenengo dokumentuari dagokionez, Udalak bidali zigun kexagileak sinatutako eskaera-inprimakiaren kopia; bertan jasota zeuden bere datu pertsonalak, kontu-zenbakia eta diru-laguntzaren xedea zen euskara-ikastaroa. Hala ere, beka gisa eskatutako zenbatekoa emateko atala bete gabe zegoen.

Administrazioak bidalitako idazkiaren arabera, euskara-teknikariak, eskariak erregistroan sartu ondoren, aurretik aipatutako dokumentu guztiak aurkeztu ote diren egiaztatu behar du eta markatzen ditu osatu gabe dauden eskariak, gero, dokumentuak aurkezteko epea bukatutakoan, kasu bakoitzean falta diren agiriak eskatzeko. Adierazi zuenez, kexagileari ez zitzaion errekerimendua bidali, eskatutako dokumentuak aurkeztu izan zituelako.

Ondoren, diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatu zen, eta orduan, euskara-teknikaria konturatu zen kexagilearen kasuan zenbateko txikia zela. Gauzak horrela, euskara-teknikariak eskaria berrikusi egin zuen. Egiaztatu zuen egoki aurkeztuta zegoela, baina 20 € baino ez zen aipatu eskarian, itzultzeko zenbateko gisa. Dirudienez, hori zen arazoa. Udalaren idazkiak dioenez:

“Zenbatekoa deigarria da, baina diru-laguntzen deialdi guztietan gertatu ohi da ordainagiri guztiak ez aurkeztea, aurkitzen ez dituztelako, edo ordainketak banku-transferentziaren bidez egin direlako eta bankuari ez zaiolako ordainketen ziurtagiria eskatzen, edo matrikula osoa epeetan banatuta egin delako eta ez direlako beti egindako ordainketa guztiak aurkezten.

Beraz, eskaera ez zen berriro eskatu, osorik (jatorrizko agirian azpimarratuta) aurkezten baitzen. Ematen den zenbatekoa, eskaera guztien arteko





hainbanatzea egin ondoren, pertsonak aurkezten duen eskaerari dagokion ehuneko jakin bat da; eskaera guztientzat kalkulatzen da horrela.”

Euskara-teknikariak abenduaren 31n baja hartu zuen, alabaina, Udalaren arabera, bere etxetik deitu zion kexagileari honako hau jakinarazteko:

“Diru-laguntzak emateko prozedura zein den azaldu zion, bai eta diru-laguntza osoa kalkulatzeko modua ere, eta azaldu zion ez zuela nahikoa denbora eskatzaileei galdetzeko ea eskaerarekin batera aurkeztutako agiriak orain dituzten berak diren, 70 eskaera egin baitira batez beste. Horrez gain, ez zaie euskaltegi guztiei deitzen ere galdetzeko ikasle bakoitzak zenbat ordaindu duen; izan ere, interesdunaren betebeharra da diru-laguntza eskatzen duen ordainketa justifikatzeko beharrezko agiriak aurkeztea.”

4. Euskara-teknikaria otsailaren bukaerara arte ez zen lanera itzuli. Udalaren idazkiak jasotzen duenez, orduan ikusi zuen kexagileak erreklamazio bat eta Bigarren Aurrekarian aipatutako ordainagiriak aurkeztu zituela Udaleko Erregistroan. Agiri horiek ez ziren kontuan hartu, deialdian ezarritako epetik kanpo aurkeztu zirelako.

Espedientearen sustatzaileak aurkeztutako erreklamazioa jaso ondoren, euskara-zinegotziak berriz ere aztertu zuen bere eskaria eta erantzun zuen ez zela beharrezkoa ezer zuzentzea.

Aurrekari horiek ikusita, egokia iruditu zaigu ebazpen hau egitea. Horretarako, honako gogoeta hauek hartu ditugu oinarri:

Gogoetak

1. Kexaren xedea den administrazioaren jarduera egiaztatu, eta Udalarentzat izan daitezkeen zentzua eta ondorioak atera behar dira, hori guztia, legezko eta jurisprudentziazko doktrinarekin bat, eskabideak zuzentzeari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikulua aurreikusitakoaren arabera (HAAJAPE). Espediente honi loturiko arloan, arau bera aipatzen da diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.5 artikuluan:

“Si la solicitud no reúne los requisitos establecidos en la norma de convocatoria, el órgano competente requerirá al interesado para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de 10 días, indicándole que si



no lo hiciese se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el art. 71 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.”

Idazki eta dokumentuak aurkeztean egon daitezkeen akatsen zuzengarritasunari buruzko printzipioa babesgabea ez egoteko konstituzio-printzipioaren adierazpena da, eta prozeduraren aldetik *in dubio pro actione* printzipioaren, edo bestela, akzioak baliatzean mesedegarriena den interpretazioa aukeratzeko arau orokorraren bidez gauzatzen da (1985eko irailaren 30eko Konstituzio Auzitegiaren Epaia). Kontuan hartu behar da, bestalde, prozedura administratiboari aplikatu behar zaion formalismoren aurkako printzipioa, azken xede gisa jokoan dauden eskubideak eta legezko interesak babesteko eraginkortasuna lortzea duena.

Printzipio horiei jarraiki, prozedura administratiboaren barruan, akatsak zuzentzeko izapidea pertsona ororen eskubide besterenduezina da; ondorioz, Administrazioaren betebeharra ere bada. Gauzak horrela, Administrazioak bidali behar ditu errekerimenduak, eskari eta baliabideak aurkeztu dizkioten pertsonen hamar eguneko epean akatsak zuzen ditzaten, aipatutako araudiak ezarritako kasuetako bat gertatuz gero.

2. HAAJAPEn 71. artikuluekin bat, jardun duen Administrazioak bi kasutan erabili ahal du –eta, era berean, behar du– aipatutako betekizuna:
 1. Prozedura hasteko eskabidean *betetzen ez badira* HAAJAPEn 70. artikulua jasotzen dituen *baldintzak*, edo, hala badagokio, aplikagarri den berariazko legedian eskatutakoak.
 2. Prozedura hasteko eskabidearekin batera *beharrezko agiriak aurkeztu ez badira*.

Horrela jaso da 2003ko otsailaren 4ko Auzitegi Gorenaren Epaian, eta bertan erabilitako irizpideari jarraitzen diote beste batzuek, adibidez, 2004ko urriaren 21ekoak, 2006ko martxoaren 1ekoak eta 2009ko urtarrilaren 16koak. Ezin da bateratu irizpide hori Administrazioak erabili duenarekin, hain zuzen, Arartekoari emandako erantzunean esandakoarekin: kexagilearen eskabideak ez zuela akatsik, hortaz, ez zela beharrezkoa horiek zuzentzeko eskatzea. Dirudienez, Udalaren ustez, bere betebeharrak mugatuak dira, hau da, eskaria osatu gabe ez dagoela ziurtatu behar du, eta eskatutako dokumentaziorik ez balego, kasu bakoitzean falta diren agiriak eskatu behar ditu. Horrela, ahaztu egiten du





aipatutako araudian akatsak zuzentzea aipatzen denean, akats horiek bi motatakoak izan daitezkeela: prozedura hasteko eskarian eskatzen diren agirietako baten falta, edo eskariak berak izan ditzakeen akatsak (Auzitegi Gorenaren 3. Gelako 7. Atalaren 2010eko urriaren 11ko Epaia), adibidez, beste baldintza batzuen artean, barne hartzen ez baditu *egitateak, arrazoiak eta eskaria, argi eta garbi adierazia* (HAAJAPEn 70.1b art.).

3. Aztertzen ari garen diru-laguntzen deialdiaren xedea 2013-2014 ikasturtean euskara ikasteko matrikula –osoa edo horren zati bat– laguntzea zen. Hortaz, matrikularen zenbatekoa nahitaezko datu bat zen, izan ere, hori adierazi gabe aurkeztutako eskari batek ez zuen betetzen aipatu dugun baldintza, diru-laguntza gisa eskatutako zenbatekoa baitzen eskabidearen funtsa. Horrekin bat eginez, inprimaki normalizatuan bazegoen zenbateko hori adierazteko lauki berezi bat, "Matrikulazio datuak" atalean. Azkenik, datu horren funtsezko izaerak ikasle bakoitzari dagokion diru-laguntza zehazteko erabili den irizpidearekin du zerikusia: Udalak emandako informazioaren arabera, diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, eskatutako zenbatekoa hartzen da oinarri, eta gero, diru-laguntza osoa zuzen aurkeztutako eskaeren artean hainbanatuz lortzen den ehunekoak aplikatzen zaio.

Honaino azaldutakotik ateratzen da, gure ustez, Zuzenbidearen aldetik administrazioaren jarduera aztertzeko funtsezkoa den bereizketa: diru-laguntza eskatzen den gastuari buruzko aitopenen eta gastu horren justifikazioaren artekoa. Biak beharrezkoak badira ere, lehenengoa, datu funtsezkoa da eskaria osatua dagoela esan ahal izateko, HAAJAPEn 70.1b artikuluan jasotakoaren arabera; bigarrenak, aldiz, eskariarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioan agertu beharko luke, eskarian dagoena egiaztatze aldera. Udalaren idazkian bi kontzeptu horiek nahastu egin dira, kexagileak eskatutako zenbatekoa 20 € direla jo delako, hori eskari-inprimakiarekin batera aurkeztutako banku-ziurtagirian agertzen zen zenbatekoa baino ez baitzen. Eskatzen zen zenbatekoa, berriz, ez zen inprimakian sartu, ebazpen honen hirugarren aurrekariak jasotzen duenez.

Deialdiaren oinarrietan azpimarratu zen diruz laguntzeko ikastaroaren matrikula ordaindu izanaren agiria aurkezteko betebeharra, baina inon ere ez zen esan, matrikulari dagokion zenbatekoa eskari-inprimakian adierazi ezean, eskaria aurkeztean agirien bidez justifikatutako gastua hartuko zela kontuan. Aitzitik, inprimakian datu hori sartzeko lauki berezia egoteak eta hori bete gabe utzi izanak esan nahi du eskari horretan ez zela agertu ezinbestekoa zen datu bat.





Ondorioz, eta euskara-teknikariak azaldu zuen borondate ona zalantzan jarri gabe –bajan egon arren, kexagilearekin harremanetan jarri zuen erabakiaren arrazoiak azaltzeko– egia esateko, arrazoiketa horrek ez dauka oinarririk Zuzenbidean, aztertzen ari garen ondorioetarako ezin baita esan eskaera beteta zegoenik. Euskara-teknikaria eskaera aztertzean konturatu behar zen horretaz eta interesdunari jakinarazi behar zion horrek akatsa zuzentzeko aukera izan zezan, izan ere, HAAJAPEn 71.1 artikulua horixe eskatzen baitu, kexagileak ordaindutakoa behar bezala justifikatzeko betebeharra oztupo izan gabe.

4. Oinarri hori abiapuntu hartuta, eta kexagileak, bere aldetik, teknikariarekin hitz egin bezain laster ordaindutako matrikulari buruzko datua emateko eta agiriak aurkezteko prestutasuna erakutsi zuela kontuan izanik, kasu honetan, matrikularen zenbatekoa 445 €-koa zela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu izana ezin da ezpeaz kanpokotzat jo.

Gogoeta hori adierazgarria da, kasu honi dagokionez, Administrazioak arloarekin zerikusia duten betebeharrak bete ez izanak ekar ditzakeen ondorioak zehazteko orduan. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2008ko ekainaren 13ko epaiak zuzen adierazten duen bezala, akatsak zuzentzeko izapidearen zentzua justizia materialeko arrazoietan eta Administrazio Zuzenbidearen ezaugarri den ohiko formalismorik ezan oinarritzen bada, eskarian edo eskatutako agirietan zegoen akatsa zuzenduta, Administrazioak beste betebeharrak bat izaten du: hain zuzen, kontuan hartu beharko luke herritarraren jarduera eta ondorio guztietarako ulertu beharko luke zuzenketa egiteko eguna bat datorrela zuzendutako eskaria aurkeztu zen egunarekin.

Kexagileari emandako diru-laguntza 9,40 €-koa izan da, hau da, Udalaren arabera kexagileak eskatu zuen zenbatekoaren % 47. Udaletik jaso dugun informazioaren arabera, ehuneko bera aplikatu zaio gainerako eskaria guztiei. Kexagilearen kasuan, eta hemen azaldutakoarekin bat, ehunekoa aplikatzeko oinarri gisa hartu behar zen zenbatekoa 445 € dira, agirien arabera hori baita herritarraren gastua 2013-2014 ikasturtean euskara ikasteko. Hori dela eta, eta Udalak eskatzaile bakoitzari dagokion diru-laguntza kalkulatzeko erabilitako irizpidea kontuan izanik, kexagileari esleitutako zenbatekoa berriro kalkulatu eta ebazpen berri bat eman behar da; kalkuluan ehuneko bera aplikatuko da, baina benetan egin zen eta egiaztatuta dagoen gastua hartuko da oinarri.





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Abanto-Zierbenako Udalari gomendatzen zaio berrius dezan bere ebazpena, 2013-2014 ikasturtean euskara ikasteko diru-laguntza gisa kexagileari 9,40 € esleitu zaiona, eta modurik egokiena aurkitu ondoren, ebazpen berri bat eman dezan: izan ere, benetan ordaindutako eta agirien bidez ziurtatutako zenbatekoari aplikatuko zaio onartu diren gainerako eskariei aplikatutako ehuneko bera, eta kalkulu horren emaitza emango zaio kexagileari diru-laguntza gisa.

